

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Mila bat pazientek erabili dute NOGeko etxeko ospitalizazio unitatea abian jarri denetik

Osasun-arretaren modalitate horren bidez, pazienteak tratamendua etxean hartzen du, ospitaleko konplexutasun, arreta eta iraupen berarekin

Martes, 19 de abril de 2011

Iruñean eta Iruñerrian zerbitzuak eskaintzen dituen Nafarroako Ospitale Guneko Etxeko Ospitalizazio Unitatean 996 paziente artatu dituzte 2008an abian jarri zenetik 2011ko apirilera, hau da, baloratutako pazienteen %85. Gaixo horiek antzeko ehunekoan iritsi ziren Iruñeko bi ospitaleetatik. Besteak beste datu horiek nabarmendu ditu gaur prentsaurrekoan José M^a Escudero zerbitzu horren arduradunak.

Osasun-arretaren modalitate horren bidez, pazienteak tratamendua etxean bertan jasotzen du. Bere bizimoduari eta ohiturei eusteak dituen onurak lortzen ditu eta ospitaleko tratamenduaren zorroztasun, konplexutasun, arreta eta iraupen bera izaten ditu.

Escuderoren arabera, pazienteen batez besteko adina 72,1 urtekoa izan zen, 16 urtetik 99 urtera artekoak joan baitziren. Pazienteen %56,5 gizonezkoak izan ziren. Gaixoen %86,4ri alta eman zieten, eta %8,5 ospitaleetan ingresatu zituzten, hainbat arrazoi direla bide. Aldi honetan, pazienteek etxeko ospitalizazioan egindako batez besteko egonaldia 9,62 egunekoak izan da, hau da, gutxi gorabehera, 9200 egun guztira.

Zerbitzu honetan aritzen diren osasun-profesionalek pazienteek behar duten laguntza ospitaleetik etxera eramaten dute, pazienteak ospitale-azpiegituretik kanpo artatzeko moduan badago. Unitate honek gaixoak artatzen ditu laguntza eskatzeko prozesuak irauten duen bitartean. Beraz, ez da paziente kronikoentzako zerbitzua ez egonaldi luzeetarako unitatea.



Prentsaurrekoan Etxeko Ospitalizazio Unitatearen jardueraren berri eman da.

Iruñea inguruan, Etxeko Ospitalizazio Unitatea 2008ko uztailaren erdialdean hasi zen funtzionatzen. Pazienteak NOGeko hiru ospitaleetatik (iraganeko Virgen del Camino ospitalea, Nafarroako ospitalea eta Ubarmin klinika) etor daitezke, eta gutxi gorabehera 300.000 pertsonako biztanleria artatzen du, herri hauek barruan hartuta: Iruñea, Burlata, Atarrabia, Barañain, Zizur, Antsoain, Berriozar eta Aranguren.

Gaur egun, NOGeko Irakaskuntza Pabilioiko behe-solairuan kokatutako zerbitzua talde honek artatzen du: atalburua den medikuak, Erizaintza Unitateko buruzagiak, bi mediku laguntzailek, bost erizainek eta administrari-laguntzaileak.



Mediku bat paziente bat auskultatzen etxeko egongelan.